

## AMAREN PESTA ( 1 )

|  |  |
|--|--|
| <p><b>Besta on, Ama</b></p> <p>Bihotzean kantuak<br/>Ezpainetan musuak<br/>Begietan izarrak<br/>Eskuetan loreak.<br/>Maitasuna gaidika<br/>Xede onak trumilka,<br/>Zure haurra hemen da<br/>Amultsuki diola :<br/>Bihotzetik besta on !<br/>Ama maite maitena.</p> | <p><b>Haur batek bere amari</b></p> <p>Ama, zuretzat ekarri ditut liliak ;<br/>Zuri pentsatuz hautatu ditut xuriak.<br/>Bertze hok aldiz, kolorez gorri biziak,<br/>Zuretzat dutan maitasuna iduriak.</p> <p>Ama, zu zira ene aberastasuna,<br/>Ene nahigabeen ezeztatzen dakizuna ;<br/>Botere hori zuk bakarrik daukazuna,<br/>Nehorek ezin ordainduzko ontasuna.</p> <p>Ez nuke nahi nik zure begitartea<br/>Nehoz ikusi dena nigarrez betea.<br/>Nik ez baitakit, errazu, ama maitea,<br/>Ni nolakoa nahi duzun izaitea.</p> <p>Ene izarra zara ama amultsua,<br/>Beira nitarik esker gabeen kutsua,<br/>Bizi guzian gaurkoa bezain kartsua<br/>Izan dadien gure arteko musua.</p> |
| <p><b>Bat, bi</b></p> <p>Bat, bi, hiru, joan naiz oihanerat,<br/>Lau, bost, sei lore polliten biltzerat,<br/>Zazpi, zortzi, bederatzi, hamar,<br/>Amari baititut eman behar.</p>   |  |
| <p>Amaren besta baita<br/>Utzirikan josteta<br/>Panpin eta pilota<br/>Goazen liliketa<br/>Izanen da buketa<br/>Arrosa ta margaita<br/>Ahal bezain pollita<br/>Zure besta baita.</p>  | <p><b>Amarendako</b></p> <p>Hiru lore bildu ditut,<br/>Bainan politena,<br/>Amarendako da.</p> <p>Hiru harri atxeman ditut,<br/>Bainan politena,<br/>Amarendako da.</p> <p>Bihotz bat bakarrik badut,<br/>Eta ene bihotz osoa,<br/>Amarendako da.</p>  |

## AMAREN PESTA ( 2 )

|  |  |
|--|--|
| <p><b>Amarendako</b></p> <p>Bihotzetan baditut nik<br/>Amarendako gorderik<br/>Kanpo ederrean baino<br/>Aise lore gehiago.</p> <p>Baditu ene bihotzak<br/>Amari eskaintzekoak<br/>Mendi zabalean baino<br/>Xori eder gehiago.</p> <p>Baditut ere gordeak<br/>Amari eman beharrak<br/>Egiten ahal den baino<br/>Potta ezti gehiago.</p> | <p><b>Amari</b></p> <p>Bildu ditut pasatzean<br/>Etx'ondoko oihanean,<br/>Loreno sortu berriak<br/>Hain polliki apaindiak,<br/>Azau eder bat egin'ta<br/>Zuri eskaintzeko, ama.</p> <p>Egun bihotza lore dut :<br/>Besoezin behar dauzut<br/>Lepoko eder bat egin,<br/>Erranez maitasunekin :<br/>Zu zira ene maitea,<br/>Bihotzez : besta on, ama !</p> |
|--|--|